

**ARRIGORRIAGAKO BERDINTASUNERAKO
UDAL
KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA
FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

**REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y
FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO MUNICIPAL
DE IGUALDAD DE ARRIGORRIAGA**

ATARIKOA

Araudi honen xedea da Berdintasunerako Kontseiluaren ibilbidea abian jartzea. Kontseilua Arrigorriagako emakumeek bizitza publikoan eta iritzi-esparruetan aktiboki parte hartzeko organoa izango da, bai eta emakumeen elkartetako jarduera udalarekin koordinatzeko baliabidea ere.

Gizonek eta emakumeek gizartean bete izan duten paperak aldaketa garrantzitsua ezagutu du. Emakumeek geroz eta partehartze handiagoa dute lan-merkatuan, hezkuntza maila guztietara iristen ari dira, prestakuntza eta kultura maila handia lortzen ari dira eta, oraindik apalagoa bada ere, erabaki-guneetara ere iristen ari dira. Gizartean aldaketa nabarmenak ematen ari dira gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko. Aldaketa hauek lortzeko ezinbestekoak izan dira talde feministak eta emakumeen eskubideen alde lanean jardun izan duten emakume anonimoak.

Hala ere, lan-merkatuko datuek, parte-hartze sozio-politikoak, etxeko lanak egin behar izateak, emakumeen kontrako biolentziak, pobretasunak eta holakoek erakusten digute emakumea dela kaltetuena oraindik ere irauten duten berdintasunik eta justiziarik gabeko egoeretan.

Oraingo erronka da lege testuek formalki aitortzen duten berdintasunerako eskubidea modu praktikoan eta eragingorrean bermatzea.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. Artikuluak, Espainiako Konstituzioak ebazten duena bere gain hartuz, berdintasunerako eskubidea eta sexuarengatiko diskriminazio eza aldarrikatzen ditu. Halaber, 9.2.d) artikuluak ezartzen duenez, herri aginteek baldintza jarri behar dituzte gizon-emakume eta taldeen arteko berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin.

Bestalde, otsailaren 18ko, 4/2005 Legeak, gizon eta emakumeen berdintasunari buruzkoa, duela gutxi onartu zuena Eusko Legebiltzarrak, mekanismoak eta neurri zehatzak planteatzen ditu euskal administrazio publikoek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren fenomeno estruktural eta unibertsal hau ezabatzeko politika eta jarduera eraginkorrak garatu ditzaten.

PREÁMBULO

A partir de este reglamento, se quiere iniciar la andadura de un Consejo de Igualdad, que será un órgano de participación activa de las mujeres de Arrigorriaga en la vida pública y en los ámbitos de opinión, así como de coordinación de la actividad de las asociaciones de mujeres con el Ayuntamiento.

El papel que tradicionalmente han desempeñado las mujeres y hombres en la sociedad está experimentando una importante transformación. La mayor participación de las mujeres en el mercado laboral, su acceso a todos los niveles educativos, su mayor acceso a la formación y a la cultura y, en menor medida, a los ámbitos de toma de decisiones, están generando unos cambios sociales favorables para el avance en el camino hacia la igualdad de mujeres y hombres; cambios que no hubieran sido posibles sin la aportación fundamental de los movimientos feministas y sin el esfuerzo de todas aquellas mujeres que desde el anonimato han trabajado a favor de los derechos de las mujeres.

Sin embargo, los datos sobre el mercado laboral, la participación sociopolítica, la realización del trabajo doméstico y de cuidado, la violencia contra las mujeres, la pobreza etc., siguen mostrando que la mujer es la más perjudicada en las situaciones de desigualdad e injusticia que aún persisten.

El reto en estos momentos sigue estando en garantizar la aplicación práctica y efectiva del derecho de igualdad reconocido formalmente en los textos legales.

El artículo 9.1 del Estatuto de Autonomía de Euskadi, a través de una remisión a lo dispuesto en la Constitución española, proclama el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo. Asimismo, el artículo 9.2.d) establece la obligación de los poderes públicos de promover la condiciones y remover los obstáculos para que la igualdad de las personas y los grupos en que se integran sea real y efectiva.

Por otro lado, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de aprobada por el Parlamento Vasco, plantea mecanismos y medidas concretas para conseguir que las administraciones públicas vascas lleven a cabo políticas y actuaciones más incisivas de cara a eliminar este fenómeno estructural y universal de la desigualdad entre mujeres y hombres.

Lege horren I. tituluko I. kapituluko 7. artikuluan tokiko administrazioei esleitzen zaizkien funtzioak aipatzen dira: *"Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute"*.

Berdintasun-politika guztietan nabarmentzen da emakumeen elkartegintza sustatu beharra. Emakumeak ahaleginak egiten ari dira bizitzaren esparru guztietara sartzeko eta hau, berez, aldaketa-eragilea da. Emakumeen elkarte berriak ari dira sortzen, eta honi esker bizitza publikoan eta erabakitze-postuetan sartzeko aukera dute, orain arte betetzen ez zituzten esparruak hain zuzen ere.

Helburu hau lortzeko sortu da Berdintasunerako Udal Kontseilua, hau da, parte hartzeko bideak ahalbidetzeko berdintasunaren alde diharduten elkarte eta gainerako erakundeen eta Toki Administrazioaren artean eta, beti ere, emakumeen presentzia areagotzeko arlo publikoan.

Horregatik, Berdintasunerako Arrigorriagako Udal Kontseiluak ezinbesteko tresna behar du izan emakumeek parte hartu dezaten gure udalerrian. Azken baten, herritarrek eta elkarteek Udaleko gaitan parte hartu dezatela lortu nahi da. Kontseiluak Arrigorriagako emakumeen ahalduntzea lortzeko balio behar du, erran nahi baita, gure ingurunean eta gure bizimoduetan eragiteko dauzkagun ahalmenez jabetzea.

Toki araubideri buruzko legeetan, halaber, mota horretako mekanismoak sortzeko aukera jaso da, herritarren parte-hartzea bideratzeko aholkularitza- eta proposamen-funtzioekin: Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduari buruzko 2568/1986 Errege Dekretua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

Arrigorriagako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2016-2019) jasotako ekintzak egiteaz gain, udalak beharrezkotzat jo du Berdintasunerako Kontseilua eratzea.

Esta Ley en el Título I, Capítulo I, Artículo 7 hace referencia entre las funciones que se asignan a las Administraciones Locales el *"Establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en el ámbito local a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres"*.

Una constante en el trabajo de las políticas de igualdad es la promoción del tejido asociativo de mujeres. El esfuerzo de las mujeres por incorporarse a todos los ámbitos de la vida constituye en sí mismo un factor de cambio, dado que las asociaciones son una vía de acceso de las mujeres a la vida pública y a los puestos de decisión de los que han estado prácticamente ausentes hasta el presente.

Y para la consecución de ese objetivo se propone en Arrigorriaga la creación del Consejo de Igualdad, con el fin de posibilitar los cauces de participación estable entre las asociaciones y demás entidades y personas del municipio que trabajan en pro de la igualdad y la Administración Local para incrementar la presencia de las mujeres en el ámbito público.

Este Consejo de Igualdad de Arrigorriaga debe de ser una pieza clave para la participación de las mujeres en nuestro municipio. Su finalidad consiste en canalizar la participación de la ciudadanía y de sus asociaciones en los asuntos municipales. El Consejo de Igualdad tiene vocación de ser un instrumento más para el empoderamiento de las mujeres de Arrigorriaga, entendiéndolo éste como la toma de conciencia de las propias capacidades de influir en nuestro entorno y en nuestras vidas.

La legislación de régimen local contempla asimismo la posibilidad de crear este tipo de mecanismos para encauzar la participación ciudadana, con funciones de asesoramiento y propuesta: Real decreto 2.568/1986 de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales y Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local.

En aplicación además de las acciones propuestas en el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Arrigorriaga 2016-2019, el Ayuntamiento ha estimado necesario constituir el Consejo de Igualdad.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA: IZAERA

1.1. Berdintasunerako Arrigorriagako Emakumeen Kontseilua kontsultarako eta informazioa emateko organoa da eta bertan lehenetasuna emango zaio emakumeen parte hartzeari. Bere helburua uriko andrazkoen partaidetza demokratikoa bermatzea da, emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasuna garatzeko eta bultzatzeko, udalaren politikan, kulturean, ekonomian eta gizartearen.

1.2. Arautegi honek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek zuzenduko dute Kontseilua.

1.3. Kontseilua ez da Udal Korporazioaren menpe egongo eta autonomia funtzionala edukiko du.

2. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN HELBURUAK

2.1. Udal Kontseiluaren helburuak dira:

- a) Emakumeen eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kultural guztiak defendatzea eta zabaltzea.
- b) Elkartegintza sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburutzat duten taldeen integrazioa bultzatuz.
- c) Udalaren politikek eta zerbitzuek andrazkoen eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasuna bermatzea zaintzea.
- d) Jatorri, etnia, desgaitasun, erlijio, joera sexual, lanbide eta abarren ondorioz era askotako bazterkeria pairatzen duten emakume-taldeei benetako aukera-berdintasuna bermatzen zaiela zaintzea.

II. KAPITULUA : FUNTZIOAK

3. ARTIKULUA: FUNTZIOAK

3.1. Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, Kontseiluak funtzio hauek beteko ditu:

- a) Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Udaleko politikak gidatu eta aholkulari-lanak egin.
- b) Aukera berdintasunerako udal jarduera-planak bultzatzea eta berauen jarraipena egitea. Halaber, Udaleko berdintasun planaren printzipioak betetzen ote diren ikuskatzea.

CAPITULO I: DISPOSICIONES GENERALES

ARTÍCULO 1: NATURALEZA

1.1. El Consejo de Igualdad de Arrigorriaga es un órgano de naturaleza consultiva e informativa, y se dará preferencia a la participación de las mujeres en el mismo. Nace con la vocación de garantizar la participación democrática de la ciudadanía de Arrigorriaga en el desarrollo e impulso del principio de igualdad de mujeres y hombres en los diferentes ámbitos de la vida política, cultural, económica y social del municipio.

1.2. El Consejo de Igualdad se regirá por el presente Reglamento y por las demás disposiciones que resulten de aplicación.

1.3. El Consejo de Igualdad gozará de autonomía funcional con respecto a la Corporación municipal.

ARTÍCULO 2: FINES

2.1. Los fines del Consejo de Igualdad:

- a) Defender y divulgar los derechos políticos, civiles, sociales, económicos y culturales de las mujeres.
- b) Fomentar el asociacionismo, promoviendo la integración de los grupos que tengan como fin principal, o uno de sus fines, la igualdad de mujeres y hombres.
- c) Velar porque las políticas y los servicios municipales garanticen la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres.
- d) Asegurar la igualdad de oportunidades efectiva respecto a colectivos de mujeres que sufren factores de múltiple discriminación, sea por razón de su origen, etnia, discapacidad, religión, orientación sexual, profesión, etc.

CAPITULO II: FUNCIONES

ARTÍCULO 3: FUNCIONES

3.1. Para el cumplimiento de los fines señalados en el artículo anterior corresponde al Consejo realizar las siguientes funciones:

- a) Orientar como órgano consultivo y de información las políticas municipales con el objetivo de conseguir la igualdad entre mujeres y hombres.
- b) Impulsar la elaboración de planes municipales de actuación hacia la igualdad de oportunidades y realizar el seguimiento de los mismos, así como el cumplimiento de los principios del Plan de Igualdad municipal vigente.

- | | |
|--|---|
| <p>c) Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzearekin zerikusia duten proposamenak egitea eta neurriak bultzatzea.</p> <p>d) Sentsibilizazio eta informazioa kanpainak egitea aukera berdintasuneko emakumeen bizitza kalitatea hobetze aldera.</p> <p>e) Emakume guztiak udalaren gaietan parte hartu ahal izatea erraztea.</p> <p>f) Emakumea sustatzeko ekintza zuzenak edo zeharkakoak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeen arteko lankidetzeta eta kooperazioa bultzatzea.</p> <p>g) Kontseiluaren eskumenak aintzat harturik, agindu diezaiokeen bestelako funtzioen bat.</p> | <p>c) Promover medidas y formular propuestas en todo lo relacionado con la consecución de la igualdad real de mujeres y hombres.</p> <p>d) Proponer la realización de campañas de sensibilización e información en todos aquellos aspectos que contribuyan a mejorar la calidad de vida de las mujeres en igualdad de oportunidades.</p> <p>e) Facilitar la participación de todas las mujeres en los asuntos municipales.</p> <p>f) Impulsar la cooperación y colaboración entre las asociaciones y demás entidades que lleven a cabo actividades de promoción de las mujeres, directa o indirectamente.</p> <p>g) Cualquier otra función que en el ámbito de su competencia se le pudiera encomendar.</p> |
|--|---|

3.2. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren funtzioak txostenak edo eskaerak eginez beteko dira.

3.2. Las funciones del Consejo de Igualdad se ejercerán mediante informes o peticiones.

III. KAPITULUA : KONTSEILUAREN OSAKETA

CAPITULO III: COMPOSICIÓN DEL CONSEJO DE IGUALDAD

4. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN OSAKETA

ARTÍCULO 4: COMPOSICIÓN

4.1. Honako hauek izan daitezke Berdintasunerako Arrigorriagako Kontseiluko eskubide osoko kide:

4.1. Podrán ser componentes de pleno derecho del Consejo de Igualdad de Arrigorriaga:

Berdintasun Kontseiluan parte hartzen duen edozein herritar, elkarte, erakunde edo fundazio, beti ere, berdintasuna bultzatzeko ekintzen garapena bilatzen badute, emakumeen eskubideen defentsa eta ikuspuntutik begiratuta.

Cualquier persona, asociación, organización o fundación que con su participación en el Consejo de Igualdad, contribuya al desarrollo de actividades para la promoción de la igualdad, desde la perspectiva y defensa de los derechos de las mujeres.

a) Elkarteez edo erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Las Asociaciones u organizaciones deberán reunir las siguientes condiciones:

1. Legez eratuta egotea eta dagozkion Erregistroetan izena emanda egotea.
2. Estatutuak Arrigorriagan helbideratuta izatea edo delegazio ofizial bat edukitzea Arrigorriagan.
3. Emakumezkoen eskubideen ikuspegitik eta eskubide horiek defendatzeko, berdintasuna sustatzeko jarduerak egiten dituela ziurtatzea, edo generoaren ikuspuntua erabiltzea dena delako eginkizunetan.
4. Irabazi-asmorik ez edukitzea, eta bere barruko egitura eta funtzionamendurako erregimena demokratikoak izatea, indarrean dagoen legediaren arabera.

1. Estar legalmente constituidas e inscritas en los Registros pertinentes.
2. Tener su domiciliación estatutaria en Arrigorriaga o una delegación oficial en Arrigorriaga.
3. Acreditar el desarrollo de actividades de promoción de la igualdad, desde la perspectiva y defensa de los derechos de las mujeres o acreditar la incorporación del enfoque de género en sus tareas.
4. No perseguir fines lucrativos y contar con una estructura interna y un régimen de funcionamiento democrático, en el marco del ordenamiento jurídico en vigor.

- b) Irabazi asmorik gabe diharduten eta berdintasunaren aldeko ekintzak egiten dituzten pertsona fisikoak, baldin eta interesa adierazten badute gaiaren inguruan.
- c) Arrigorriagan ordezkariak daukaten sindikatueta emakumezkoen sailak.

Pertsona juridiko edo sail bakoitzak, gehenez ere, bi ordezkari izendatuko dituzte ahots eta botoarekin. Halaber, titular bakoitzeko ordezkari bat ere izendatu daiteke. Pertsona fisikoek euren burua ordezkari dute Kontseiluan eta ahotsa eta botoa izango dute.

4.2. Parte tekniko instituzionalen aldetik, hauek izango dira Kontseiluko kide:

- a) Berdintasunerako Sailaren zinegotzia, ahotsarekin eta botoarekin. Presidente lana egingo du, alkateak hala izendatu eta gero.
- b) Berdintasunerako teknikari bat, ahotsarekin baina botoa gabe. Kontseiluko idazkari lana egingo du.

4.3. Kontseiluko kide izan ahal izango dira Udal ordezkariak duten alderdi politikoek; hitza izango dute baina ez botoa.

Udaleko talde politikoek delegatuaren izena eman beharko dute eta egiaztatu Kontseiluko idazkariaren aurrean. Halaber, titular bakoitzeko ordezkari bat ere izendatu dezakete. Biak izango dira Udal zinegotziak.

4.4. Arrigorriagako Berdintasunerako Kontseiluak genero berdintasunaren esparruko pertsona adituak izan ditzake gai zehatz eta bereziak aztertzeko eta aholkularitza emateko. Parte hartu dezakete Kontseiluaren gehiengoak hala proposatzen badu. Parte-hartze hau puntuala izan daiteke, honela, Kontseiluak parte hartzeko denbora mugatu dezake. Aditu hauek ahotsa izango dute, baina botoa ez.

5. ARTIKULUA: KONTSEILUAN SARTZEA

5.1. Berdintasunerako Kontseiluan parte hartu nahi duten entitate, organizazio eta elkarteek Presidentetzari zuzendu beharko dizkiote eskaerak.

Berdintasunerako Kontseilua arduratuko da kide izateko eskaerak onesteaz, aurreko artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta gero.

- b) Personas físicas que actúen sin fines lucrativos y que desarrollen actividades a favor de la igualdad, manifestando un interés estable por el tema.

- c) Las secciones de la mujer de los sindicatos con representación en Arrigorriaga.

Cada persona jurídica o sección designará dos representantes como máximo con voz y voto, pudiendo asimismo designar una suplencia por cada titular. Las personas físicas se representarán a sí mismas en el Consejo de Igualdad contarán con voz y voto.

4.2. Por la parte técnica institucional, formarán también parte del Consejo de Igualdad:

- a) La Concejala o Concejale del Área de Igualdad, con voz y voto, quien ejercerá la Presidencia, previo nombramiento por Alcaldía.
- b) Una persona Técnica del Área de Igualdad, con voz y sin voto, que ejercerá asimismo la Secretaría del Consejo de Igualdad.

4.3. Podrán formar parte del Consejo, con voz pero sin voto, los partidos políticos con representación municipal.

Los partidos políticos deberán nombrar ante la Secretaría del Consejo el nombre de la persona delegada, pudiendo asimismo designar una suplente por cada titular. Ambas personas deberán tener la condición de concejala o concejal del ayuntamiento.

4.4. El Consejo de Igualdad de Arrigorriaga podrá contar con la participación de personas expertas y personalidades de reconocida valía dentro del ámbito de la igualdad de género, para el estudio y asesoramiento en temas concretos y específicos. Podrán participar a propuesta de la mayoría. Su participación será de carácter puntual o temporal, para lo cual, se delimitará el tiempo de su participación, la cual será en todo caso con voz pero sin voto.

ARTÍCULO 5: INCORPORACIÓN AL CONSEJO DE IGUALDAD

5.1. Las Entidades, Organizaciones y Asociaciones que pretendan su incorporación al Consejo de Igualdad deberán dirigir su solicitud a la Presidencia del mismo.

Las solicitudes de integración serán aprobadas por el Consejo de Igualdad, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo anterior.

5.2. Norberaren buruaren izenean parte hartu nahi duten pertsona fisikoek ondorengo datuak aurkeztu behar dituzte:

- o Izena eta bi deitura.
- o Kontseiluan parte hartzeko arrazoiak azaltzea.
- o Gaiari interesa dutenari buruzko adierazpena eta irabazi asmorik ez duteneko.
- o Deialdiak jaso ahal izateko helbidea eta harremanetarako telefonoa.

5.3. Datu horietan aldaketaren bat gertatzen bada, Kontseiluaren Idazkaritzara jakinarazi beharko da, aldaketak jazo eta hilabete baten barruan.

5.4. Kontseiluan parte hartzeak honakoak dakartza: araudia onartzea, Kontseiluaren edukiei buruzko informazioa ematea dena delako elkarte edo erakundeari eta batzarretan hartutako konpromisoak betetzea.

5.5. Kontseiluan parte hartzeak ez du inolako ordain-saririk ekarriko.

6. ARTIKULUA: KONTSEILUKO KIDETZA GALTZEA

6.1. Elkarrekin edo erakundeekin Berdintasunerako Arrigorriagako Udal Kontseiluko kide galtzea galduko dute arrazoi hauengatik:

- a) Norbere borondatea.
- b) Elkarrekin desagitea edo 4.1.b) artikuluan ezarritako baldintzen arabera funtzionatzeko autonomia galtzea.
- c) 4. artikuluan ezarritako beste baldintzaren bat ez betetzea.
- d) Berdintasunerako Kontseiluak egindako 10 bileren barruan, justifikatu gabe ordezkariak hiru bider jarraian edo bost aldiz txandaka batzarretara bertaratu ez badira. Esandako hau udaleko taldeen ordezkarietzat ere balio du.
- e) Datuen aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epean.
- f) Kontseiluaren araudia edo gobernuko organoen erabakiak behin eta berriz ez betetzea.
- g) Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak izatea, jarduerak egitea edo adierazpenak agertzea, eta Kontseilua ahoz eta botoarekin osatzen duten kideen bi herenak hala uste izatea.

5.2. Las personas físicas que deseen participar a título individual deberán aportar los siguientes datos:

- o Nombre y dos apellidos
- o Explicación de los motivos que le mueven a participar en el Consejo de Igualdad
- o Declaración responsable en la que conste su interés estable por el tema y no perseguir fines lucrativos
- o Dirección y teléfono de contacto para las convocatorias

5.3. Cualquier modificación posterior de los datos aportados deberá notificarse a la Secretaría del Consejo de Igualdad dentro del mes siguiente a la fecha en que se produzcan.

5.4. La participación en el Consejo de Igualdad implica la aceptación del presente Reglamento, informar a su Asociación o Entidad sobre los contenidos del mismo y cumplir los compromisos acordados en las reuniones.

5.5. La representación en el Consejo de Igualdad no conllevará retribución de ninguna clase.

ARTÍCULO 6: PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE COMPONENTE DEL CONSEJO DE IGUALDAD

6.1. Perderán la condición de miembro del Consejo de Igualdad de Arrigorriaga las asociaciones o entidades que incurran en cualquiera de las siguientes causas:

- a) Voluntad propia.
- b) Disolución de la Asociación o entidad o pérdida de la autonomía funcional en los términos establecidos en el artículo 4.1.b)
- c) Pérdida de algún otro requisito de los requisitos establecidos en el artículo 4.
- d) Por falta de asistencia injustificada de la persona o personas representantes tres veces consecutivas o cinco veces alternas dentro de un período de diez sesiones del Consejo de Igualdad. Este motivo será también aplicable a los representantes de los grupos municipales.
- e) No comunicar en los plazos establecidos las modificaciones de los datos.
- f) Incumplimiento reiterado del Reglamento o de los acuerdos que se tomen.
- g) Realización de conductas, actividades o manifestaciones contrarias a los principios y objetivos de este espacio para la Igualdad y que así sea apreciado por la mayoría de dos tercios del número legal de miembros con voz y voto.

6.2. Pertsona indibidualen kasuan, aurreko ataleko arrazoiak aplikatuko dira, b letra izan ezik.

6.3. Kontseiluaren kidetza galtzea Kontseiluak berak erabakiko du dagokion espedientea tramitatu ondoren, eta honen berri emango zaio dena delako elkarteari edo pertsona indibidualari.

IV. KAPITULUA: UDAL KONTSEILUAREN ORGANOAK

7. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN EGITURA

7.1. Berdintasunerako Arrigorriagako Kontseiluak egitura hau izango du:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Presidentetzak.
- c) Idazkaritza.

8. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIA

8.1. Batzar Nagusia Kontseiluaren organo gorena da, eta honela dago eratuta: Presidentzia betetzen duen pertsona, Idazkaritza betetzen duena eta 4. artikuluan jasotako elkarte eta erakundeetako ordezkariak eta pertsona indibidualak. Halaber, aukera berdintasunerako pertsona teknikaria ere izango da, idazkari lanak beteko dituen.

8.2. Gainerako elkarte, federazio eta erakundeek, gehenez ere, bi ordezkari izango dituzte Batzar nagusian, eta Kontseiluko idazkariaren aurrean egiaztatuko dute zein den titularra eta zein ordezkoa, beti ere, euren estatutuen arabera izendatutako pertsonak beharko dutelarik izan.

9. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK

- 1) Kontseiluaren jarduera-lerro nagusiak ezartzea.
- 2) Urteko jarduera egitaraua ebaluatzea eta, hala balegokio, onartzea, eta gauza bera kudeaketa-memoriari dagokionez.
- 3) Laguntasuna eskaintzea Arrigorriagako Udala urteko jarduera egitarauari dagokionez, norberaren inizatibari ekinez edo udaleko organoek hala eskatuz gero.
- 4) Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak, bai eta horien aldaketak ere, onartzea.

6.2. En caso de personas individuales, se aplicarán las causas indicadas en las letras del apartado anterior, excepto la letra b.

6.3. El cese como miembro del Consejo de Igualdad será acordado por el mismo una vez tramitado el oportuno expediente en el que habrá de darse audiencia a la asociación o persona individual afectada.

CAPITULO IV: ÓRGANOS DEL CONSEJO DE IGUALDAD

ARTÍCULO 7: ESTRUCTURA DEL CONSEJO DE IGUALDAD

7.1. El Consejo de Igualdad de Arrigorriaga contará con la siguiente estructura:

- a) La Asamblea.
- b) La Presidencia.
- c) La Secretaría.

ARTÍCULO 8: LA ASAMBLEA

8.1. La Asamblea es el órgano supremo del Consejo de Igualdad y está constituido por la persona que ocupe la Presidencia, por la que ocupe la Secretaría y por la totalidad de representantes de asociaciones y entidades a que se refiere el artículo 4 y de personas individuales, además de la persona Técnica de Igualdad de Oportunidades, que asumirá asimismo las funciones de Secretaría.

8.2. Las asociaciones, federaciones y resto de entidades contará con dos representantes como máximo en la Asamblea y acreditarán ante la Secretaría del Consejo de Igualdad a la delegada titular y a la suplente que concurran en su representación y que hayan sido elegidas o nombradas al efecto según el procedimiento que establezcan sus respectivos estatutos.

ARTÍCULO 9: ATRIBUCIONES DE LA ASAMBLEA.

- 1) Señalar las líneas generales de actuación del Consejo de Igualdad.
- 2) Evaluar y aprobar, si procede, tanto el Programa Operativo como la Memoria correspondiente a su gestión.
- 3) Colaborar con el Ayuntamiento de Arrigorriaga en el marco del Programa Anual de Actividades, ya sea a iniciativa propia o cuando así sea requerida por cualquiera de los órganos municipales competentes.
- 4) Aprobar el Reglamento Interno y demás normas de funcionamiento del Consejo de Igualdad, así como sus modificaciones.

- 5) Erakunde instituzionalen batek eskatzen duenean edo egoki dela uste duenean, Batzar Nagusiak gai zehatzei buruzko iritziak eman ahal izango ditu eta proiektu, programa, plan, xedapen orokor edo andrazkoen interesetan eragina izan dezakeen beste edozein jarduerari buruzko txostena egin ahal izango du.
- 6) Udaleko sail ezberdinei beharrezko ikusten dituen proposamenak egitea Arrigorriagako emakumeen interesak defenditzeko eta sustatzeko. Egin beharreko guztietan izaera multidiziplinarra bultzatuko da.
- 7) Kontseiluari jakinarazten zaizkion salaketa diskriminatzaileak batu eta bideratu dagokion organoen aurrean, beti ere, berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira edo iraingarriak badira emakumeentzat.
- 8) Erakunde berriak sartzeko eskariak onartzea, bai eta barruan daudenak kanporatzea ere, 5. eta 6. artikuluek ezartzen duten moduan.
- 5) En los supuestos en que así sea requerido por algún órgano institucional o cuando así lo considere de oficio, la Asamblea podrá emitir dictámenes sobre cuestiones concretas, informar proyectos, programas, planes, disposiciones de carácter general o cualquier otra actuación que pudiera afectar a los intereses de las mujeres.
- 6) Formular a los diferentes Áreas municipales las propuestas que estimen necesarias para la defensa y el fomento de los intereses de las mujeres de Arrigorriaga, propiciando un carácter multidisciplinar en todas sus actuaciones.
- 7) Recoger y canalizar ante los órganos competentes cuantas denuncias discriminatorias sean puestas en conocimiento del Consejo de Igualdad, siempre que estas contravengan el principio de igualdad o denigren a las mujeres.
- 8) Aprobar la solicitud de incorporación de nuevas entidades, así como la expulsión de las ya incorporadas, en la forma prevista en los artículos 5 y 6.

10. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

10.1. Ohiko Batzar Nagusia ahal bada hiru hilean behin presidenteak deialdia egin ondoren. Batzarrak Udaletxean egingo dira.

10.2. Batzarra ohiz kanpo bilduko da presidenteak erabakitzen duenean, edo Batzar Nagusiko ordezkarien erdiak hala eskatzen badute

Kontseiluaren Idazkaritzan eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik hasita zazpi egun naturaleko epea izango da Batzar Nagusiaren deialdia egiteko, eta 15 egun naturaleko epea bilera egiteko.

10.3. Ohiko Batzarrak, gutxienez, 7 egun natural lehenago deituko dira. Presazkoen deialdia egiteko, ostera, gehienez ere 4 egun naturaleko epea izango da. Hala ere, deialdiaren premia Batzar Nagusiak berretsi beharko du.

10.4. Kontseiluko presidenteak egoki deritzen gaiekin eta proposatzen dizkieten gainerakoekin osatuko da gai-zerrenda. Edozein kasutan, proposamen horiek Kontseiluko presidenteari bidali beharko zaizkio, bilera egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

ARTÍCULO 10: FUNCIONAMIENTO DE LA ASAMBLEA

10.1. La Asamblea se reunirá con carácter habitual y preferentemente una vez al trimestre, previa convocatoria de la Presidencia. Las reuniones se llevarán a cabo en la Casa Consistorial.

10.2. La Asamblea se reunirá con carácter extraordinario cuando así lo decida la Presidencia, o lo soliciten la mitad de las delegadas de la Asamblea.

La Asamblea será convocada dentro de los 7 días naturales siguientes a la fecha en que sea formalizada la solicitud ante la Secretaría del Consejo de Igualdad y la sesión será celebrada dentro de los 15 días naturales siguientes.

10.3. Las sesiones ordinarias serán convocadas, al menos, con 7 días naturales de antelación, al igual que las extraordinarias, salvo las que tengan carácter de urgente, que serán convocadas con un plazo de antelación no superior a los 4 días naturales. En cualquier caso la urgencia de la convocatoria deberá ser ratificada por la Asamblea.

10.4. El Orden del Día será confeccionado con los asuntos que considere oportuno incluir la Presidencia del Consejo de Igualdad y aquellos otros que le sean propuestos. En cualquier caso estas propuestas deberán ser notificadas a la Presidencia del Consejo de Igualdad con una antelación mínima de 15 días naturales a la fecha prevista para la celebración de la sesión.

10.5. Batzar Nagusia baliozkoa izateko, bazkideen herena bertaratu beharko da. Beti behar izango da presidentzia betetzen duen pertsona edo idazkaritza betetzen duena, edo horien ordezkioak, bertan goatea.

Lehen deialdian ez badago quorum nahikorik, Batzar Nagusia ordu erdi geroago deituko da automatikoko, eta batzarra egin ahal izateko nahikoa izango da presidentea eta idazkaria egotea edo, kasuan kasu, horien ordezkioak, eta, gutxienez, kontseiluko bi kide.

10.6. Erabakiak adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta botoa emateko eskubidea daukatenez abstenitu egin daitezke.

Gai bati buruzko eztabaida hasi eta ordezkari bat edo bat baino gehiago falta badira, botazioan abstenitu egin direla ulertuko da.

Bozketa egiterakoan berdinketa egon bada, Presidentetzak izango du kalitateko botoa.

Botoa pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Titularrak edo Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta dagoen ordezkariak eman beharko du botoa. Postaz emandako botoa ez da onartuko.

Oro har, botoa publikoa izango da. Botoa isilpekoa izango da ordezkarien gehiengo osoak eskatzen dutenean.

10.7. 6.1.g) artikulua ezartzen duenaren kaltetan izan gabe, Batzarraren erabakiak, oro har, bertaratu gehiengo sinplez hartuko dira. Hala ere, beren beregi zehazten diren kasuetan gehiengo osoa beharko da. Gehiengo sinplea izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Kontseiluko kide diren erakunde-kopuruaren erdia baino gehiago direnean.

10.8. Batzar Nagusira joan ahal izango dira Udal teknikariak eta gonbidatzen direnak ere, eztabaidatuko diren gaietan adituak direlako edo gaien eskumenak daukatelako. Hitz egin ahal izango dute, baina ez botorik eman.

10.5. La Asamblea se constituirá válidamente con la asistencia de un tercio del número legal de sus participantes, requiriéndose, en todo caso, la asistencia de la persona que ocupe la Presidencia y de la que ocupe la Secretaría o de las personas que les sustituyan.

Si en primera convocatoria no concurriera el quórum necesario, la Asamblea se entenderá automáticamente convocada media hora después, siendo suficiente para la válida celebración de la sesión, la presencia de la Presidencia y la Secretaría o en su caso de quienes les sustituyan, y de, al menos 2 de sus miembros.

10.6. La adopción de acuerdos se produce mediante consenso o, en su defecto, mediante votación ordinaria. El voto puede emitirse en sentido afirmativo o negativo, pudiendo las asistentes con derecho a voto abstenerse de votar.

La ausencia de una o varias delegadas una vez iniciada la deliberación de un asunto equivale, a efectos de la votación correspondiente, a la abstención.

En los casos de votación con resultado de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad.

El voto es personal e indelegable y deberá ser ejercido ya sea por la delegada titular o por su suplente debidamente acreditada ante la Secretaría del Consejo de Igualdad. No se admitirá voto por correo.

Como regla general el voto será público. El voto será secreto cuando así lo soliciten la mayoría absoluta de las delegadas.

10.7. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 6.1.g), los acuerdos de la Asamblea se adoptarán, como regla general y salvo los supuestos que deban ser aprobados por mayoría absoluta y que expresamente se determinen, por mayoría simple de las delegadas presentes. Existe mayoría simple cuando los votos afirmativos son más que los negativos. Se entenderá que concurre mayoría absoluta cuando los votos afirmativos son más de la mitad del número de entidades que integran el Consejo de Igualdad.

10.8. A las sesiones de la Asamblea podrán asistir, con voz pero sin voto, el personal técnico municipal que sea requerido para ello, así como aquellas personas que hayan sido invitadas por razón de su competencia o especial conocimiento sobre los asuntos a tratar.

Gonbidapenak presidentziak egingo ditu, Kontseiluaren gehiengoak hala onartu ostean, eta bat etorrita 4.3. artikulua ezartzen duenarekin.

11. ARTIKULUA: PRESIDENTZIA

11.1. Presidentzia gizon eta emakumeen berdintasunerako politikak sustatzeko eta garatzeko eskumena duen udal saileko zinegotzi-delegatuak beteko du, alegiak, alkatetzak izendatutako pertsona.

11.2. Kontseiluko presidentzia beteko duen pertsona erakunde horretako ordezkari gorena izango da eta hauek dira bere eskuduntzak.

- 1) Batzar Nagusirako deialdia egitea eta bilerako buru izatea.
- 2) Batzar Nagusiko bilerak moderatzea, eztabaidak zuzentzea, erabakiak betetzea eta botazioetako berdinketak ebaztea.
- 3) Arautegi hau interpretatzeko eta aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak ebaztea.
- 4) Kontseiluaren berezko helburuak betetzen direla zaintzea eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dauden legeetara egokitzen direla zaintzea.
- 5) Batzar Nagusiak hartzen dituen erabakien berri ematea Korporazioari.

11.3. Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatutako balitz, Presidente, presidenteordeak ordezkatu du, presidenteak idatzizko delegazioa egin eta gero, eta ordezkapenaren berri emango da bilkura hasitakoan.

12 ARTIKULUA: IDAZKARITZA

12.1. Idazkaritza Udaleko aukera berdintasunerako pertsona teknikari batek beteko du

12.2. Idazkaritzari dagozkio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa. Idazkaria Batzar Nagusian izango da. Idazkaria Kontseiluko Batzar Nagusiaren bileretan izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

12.3. Honako hauek dira Idazkaritzaren funtzioak:

- 1) Presidentziak aginduta, bileretako deialdiak egitea eta bidaltzea.

Las invitaciones serán cursadas a instancias de la Presidencia, previo acuerdo por mayoría del Consejo de Igualdad, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4.3.

ARTÍCULO 11: LA PRESIDENCIA

11.1. La Presidencia será ostentada por el o la Concejala delegada del Área municipal competente en el impulso y desarrollo de políticas para la igualdad de mujeres y hombres, nombrada y separada libremente por la Alcaldía.

11.2. La persona que ocupe la Presidencia del Consejo de Igualdad ostentará la máxima representación del mismo y asumirá las siguientes atribuciones:

- 1) Convocar y presidir la Asamblea.
- 2) Moderar las sesiones de la Asamblea, dirigir sus deliberaciones, ejecutar sus acuerdos y dirimir las votaciones en caso de empate.
- 3) Resolver las dudas que se presenten con motivo de la interpretación y aplicación del presente Reglamento.
- 4) Velar por el cumplimiento de los fines propios del Consejo de Igualdad y de la adecuación de sus actuaciones a lo dispuesto en la normativa vigente.
- 5) Informar a la Corporación de los acuerdos adoptados por la Asamblea.

11.3. En casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, la presidencia será sustituida por otra persona integrante de la corporación, previa delegación por escrito presentado ante la secretaría del Consejo de Igualdad, de la cual se dará cuenta al inicio de cada sesión.

ARTÍCULO 12: LA SECRETARÍA

12.1. La Secretaría la ostentará una persona Técnica de Igualdad de Oportunidades del Ayuntamiento.

12.2. La Secretaría es el órgano al que compete la gestión administrativa y Técnica del Consejo de Igualdad, asistiendo a la Asamblea. La Secretaria acudirá a las sesiones de la Asamblea, con voz pero sin voto.

12.3. Constituyen funciones de la Secretaría, las siguientes:

- 1) Confeccionar y enviar las convocatorias de las sesiones, por orden de la Presidencia.

- | | |
|---|--|
| <p>2) Kontseiluko presidentziari laguntzea, bere eginbeharrekoen dagozkien gaietan eta halaxe eskatzen dizkiotenean.</p> <p>3) Bileretako aktak egitea. Jakinarazpenak, datu-eskabideak, zuzenketak edo bere karguagatik jaso behar duen beste edozein idazki jasotzea.</p> <p>4) Kontseilua osatzen duten erakundearen erregistroa, eta kide, ordezkari eta erakundeetako ordezkarien zerrenda eguneratuta edukitzea.</p> <p>5) Batzar Nagusiaren erabakien ziurtagiriak egitea.</p> <p>6) Kontseiluko organokoek eskatzen dizkieten eginbeharrak.</p> | <p>2) Asistir a la Presidencia en cuantos asuntos inherentes a su condición le sea requerido.</p> <p>3) Levantar acta de las sesiones. Recibir las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquier otro escrito del que deba tener conocimiento por razón de su cargo.</p> <p>4) Llevar de forma actualizada el registro de entidades que componen el Consejo de Igualdad, relación de delegadas y suplentes y representantes de los diferentes órganos.</p> <p>5) Emitir testimonio de los acuerdos de la Asamblea.</p> <p>6) Aquellas que le sean encomendadas por los órganos del Consejo de Igualdad.</p> |
|---|--|

V. KAPITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZA

CAPÍTULO V: PARTICIPACIÓN CIUDADANA

15 ARTIKULUA: INFORMAZIOA

ARTÍCULO 13: INFORMACIÓN

Berdintasunerako Arrigorriagako Udal Kontseiluak bere kudeaketaren berri eta bere jarduerarekin lotutako gaien berri emango die herritarrei; horretarako, bere eskuera dauden eta egoki deritzen baliabide eta informazio-ekintzak erabiliko ditu. Era berean, herritarren iritzia eskatu ahal izango du eztabaida, bilera, kontsulta, inkesta edo egoki deritzon beste edozein modu erabilita.

El Consejo de Igualdad de Arrigorriaga informará a la ciudadanía de su gestión y de los asuntos relacionados con su ámbito de actuación a través de los medios y actos informativos que estén a su disposición y considere oportunos. Así mismo podrá recabar la opinión de los vecinos y de las vecinas a través de debates, reuniones, consultas, encuestas o cualquier otro medio que considere adecuado.

AZKEN XEDAPENA

DISPOSICION FINAL

Araudi hau indarrean sartuko da apirilaren 2ko Toki Araubideko Oinarriak arautzen duen 7/85 Legearen 70.2 artikulua ezartzen dituen baldintzak bete ondoren.

El presente Reglamento entrará en vigor una vez cumplidos los requisitos establecidos en el artículo 70.2 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

- ✓ **Honako Osoko Bilkura honetan behin behinean onartua** / Aprobación inicial en Pleno de fecha: **2017/03/30.**
- ✓ **Testu osoa 2017/06/15eko BAO, 114.zk.** / Texto íntegro en B.O.B. núm. 114 de fecha 15/06/2017